

HAUR HEZKUNTZAKO
LEHEN ZIKLOKO
PROPOSAMEN
PEDAGOGIKOA GARATZEKO
ORIENTABIDEAK

1. HITZAURREA

2. PROPOSAMEN PEDAGOGIKOA

2.1. Sarrera

2.2. Helburuak

2.3. Arloak

2.4. Printzipio pedagogikoak

2.5. Ebaluazioa

2.6. Banakako desberdintasunei erantzutea

2.7. Familien elkarlana. Tutoretza

2.8. Eguneko jardunaren antolamendua

1. HITZAURREA

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duen abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak aldaketa garrantzitsuak egiten ditu aurreko arauaren testuan; legearen zioen azalpenean adierazten den moduan, aldaketa horietako asko jatorrizko testuan jasotako neurriak berrikusteko beharrari zor zaizkio, hezkuntza sistema XXI. mendeko erronka eta desfioei egokitzearen, Europar Batasunak eta UNESCOk 2020-2030 hamarkadarako zehaztutako helburuekin bat.

Ikuspegi horri jarraikiz, abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoaren atariko tituluak hezkuntzaren printzipio eta helburuen artean aipatzen du, besteak beste, haurren eskubideak benetan betetzea Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan ezarritakoaren arabera, hezkuntza inklusioa ezartzea eta Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalaren printzipioak aplikatzea.

Haur Hezkuntzari dagokionez, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren testu berriak etapako antolamenduari eta printzipio pedagogikoei gehitzen die haurtzaroaren kultura espezifikoarekiko errespetua, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan eta haren Batzordearen Ohar Orokorretan zehazten dena.

Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzaren etapako irakaskuntzen curriculumak ezartzen duen ekainaren 1eko 61/2022 Foru Dekretuak etapa osoaren xedeak, helburuak eta printzipio orokor eta pedagogikoak zehazten ditu, bai eta konpetentzia gakoak ere, eskolaratzearen hasieratik garatu beharrekoak. Horrez gain, arlo bakoitzerako jasotzen dira etaparako aurreikusten diren konpetentzia espezifikoak, ebaluazio irizpideak eta ziklo bakoitzean ezarritako oinarritzko jakintzak.

Dekretu horren 2.2. artikulua honako hau ezartzen du: “Ikastetxeek proposamen pedagogiko bat jasoko dute beren hezkuntza proiektuan, eta bertan, batetik, bi zikloen hezkuntza izaera jasoko da, eta, bestetik, foru dekretu honen eranskinetan ezartzen den curriculumak garatu eta osatuko dute, haur bakoitzaren ezaugarri pertsonaletara eta beren hezkuntza eta gizarte errealitatera egokituta”.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak proposamen pedagogikoa egiteko orientazio hauek ematen ditu, proposamen horretan lagungarri izan den tresna tekniko bat eskaintze aldera.

2. PROPOSAMEN PEDAGOGIKOA

2.1. SARRERA

Proposamen pedagogikoa lehendik dagoenaren gainean eginen da, hau da, lehendik egiten den horren gainean, zer egin nahi den planteatzeko. Errealista izan behar du. Ondorioz, fomalistegiak eta zurrunegiak edo idealistegiak edo ezinezkoak diren planteamenduak saihestu behar ditu.

“Lan horretan taldea ez da hutsetik abiatzen. Praktikari buruzko hausnarketa bat da. Hausnarketa horretan erreferente eta abiapuntu dira banaka eta taldean izandako esperientzia, eskolaren kokapena, testuinguru sozial eta kulturala eta haurren beharrak, hau da, hezkuntza taldeak ezagutzen dituen eta une oro hizketagai dituen elementuak. Printzipio teorikoen eta praktikaren arteko tentsioak, nahien eta errealitatearen arteko tentsioak, hezitzailearen eta haren eguneroko lanaren arteko aldeak, eta banakako planteamendu propioen eta taldearen planteamenduaren arteko aldeak, hau da, azken finean, gatazka kognitibo eta sozio kognitiboei hausnarketa eragiten ahal dute, eta taldean erabakiak hartzerantz bultzatu, proiektu bateratu bat egiteko. Proiektu dinamiko eta orientatzailea da, eta kontuan hartzen ditu objektiboki neurtzeko zailak diren alderdiak, besteak beste eguneroko bat-batekotasuna eta murgiltze bidezko ikaskuntzak, espazio nahikoa utziz haurren egunerokoan gertatzen diren bat-bateko egoera ugariak aprobetxatzeko”. (Alzola, N., Otaño, J., *El porqué de la vida cotidiana*, Revista Infancia 35. zk.)

[Ekainaren 1eko 61/2022 Foru Dekretuak](#) curriculumaren parte diren kontzeptuen definizioak jasotzen ditu 3. artikuluan.

2.2. HAUR HEZKUNTZAKO ETAPAREN HELBURUAK

[Ekainaren 1eko 61/2022 Foru Dekretuaren](#) 8. artikuluan Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako etaparen helburuak ezartzen dira.

Hezkuntza taldeak eguneroko lanaren helburu hezitzaileari buruz hausnartuko du, helburu horiek proposamen pedagogikoa egiteko hautatuz, antolatuz eta lehenetsiz.

Lan horretan, zilegi da batzuk beste batzuen gainetik lehenestea, helburuak batzea, hala badagokio horietan jaso ez diren alderdiak txertatzea, helburu batzuen ikuspegia edo irismena zehaztea, helburu bakoitzaren iruzkin berariazkoa egitea eta abar.

2.3. HAUR HEZKUNTZAKO ETAPAKO ARLOAK

[Ekainaren 1eko 61/2022 Foru Dekretuaren](#) 9. artikuluan Haur Hezkuntzako arloak ezartzen dira.

Haur Hezkuntzaren hezkuntza edukiak haurren esperientziari eta garapenari dagozkien esparruekin bat datozen arlo batzuetan antolatzen dira; haurrentzat interesa eta esanahia duten ikaskuntza proposamen globalizatuen bidez landu behar dira.

Arloak elkarren arteko sakoneko lotura duten esperientzia-esparrutzat hartu behar dira, eta, beraz, ikaskuntza egoera globalak, adierazgarriak eta bizigarriak sortzea sustatzen duen hezkuntza planteamendua beharko da, horiek osatzen dituzten elementu guztien artean loturak ezartzen laguntzeko.

2.4. HAUR HEZKUNTZAKO ETAPAREN PRINTZPIO PEDAGOGIKOAK

Etaparen honetan, hezkuntzako jardunaren helburua izanen da modu progresiboan garatu eta finkatzea haur bakoitzaren garapen handiena lortzen lagunduko duten oinarriak. Ikasteko gozamina sortzera bideratuko da jardun hori, eta oinarrituta egonen da ikaskuntza- esperientzia adierazgarri, globalizatu eta emozionalki positiboa, bai eta esperientziazko eta jolasean ere. Horrez gain, goxotasun eta konfiantza giroan gauzatu beharko da, ikaslearen autoestimua eta gizarteratzea sustatzeko eta atxikimendu segurua ezartzeko. Orobat, zainduko da lehen kontaktutik bermaturik egon dadin trantsizio positiboa familia inguruetik eskola ingurunera, bai eta zikloen eta etapen arteko jarraitutasuna ere. Hezkuntzako jardunaren ardatz egituratzailea eguneroko errutinak izanen dira.

[Ekainaren 1eko 61/2022 Foru Dekretuak](#) haur hezkuntzako etapako printzipio pedagogikoak ezartzen ditu 7. artikuluan.

Printzipio horiei buruz hausnartzeaz gain, gai hauek ere izan daitezke hausnarketa iturri:

• Hezitzailearen eginkizuna

Praktika hezitzaile onean lagungarriak diren jarrerak definitzen ahal dira:

- Haurren aurrean errespetuan eta konfiantzan oinarritutako jarrera amultsu eta ez-diskriminatzailea edukitzea.
- Erreferentziazko puntu afektibo-emozionala bihurtzea.
- Muga egituratzaileak jartzea beharrezkoa denean, epaitu eta errudun sentiarazi gabe.
- Ikasleei gatazka kognitibo (sozial eta afektibo) mailaren bat pizten dieten egoerak proposatzea, beren ikaskuntza prozesuan aurrera egiten laguntzeko.

Puntu honetan, helduok –oro har– dugun eginkizuna aipatzen ahal dugu, ez soilik hezitzaileena. Hala, haurrei aukera emanen diegu ikastetxean duten erreferentziazko pertsonen zirkulua handitzeko.

Ikastetxean haurrekin espazio eta uneak partekatzen dituzten helduen eginkizunak zeintzuk diren zehaztu beharko dugu. Ikastetxeko langile guztien inplikazioak aztertu behar ditugu, ez soilik hezkuntza taldekoenak. Esate baterako, sukaldariak, garbiketako laguntzaileak eta beste batzuek duten hartu-emanak. Ondoren, ikastetxearen bizimoduan, filosofian eta proiektuan nola parte hartzen duten zehaztuko dugu.

Puntu honetan, talde-lanaren garrantzia aipatzen ahal dugu.

• Harrera-aldia

Haurrak txikiak direnean sartzen dira haur hezkuntzara eta une hori bereziki esanguratsua da familiarentzat. Oro har, haur eta familien arteko lehen bereizketa

garrantzitsua da. Horregatik, ikastetxeko langile guztiek tentuz landu beharreko gaia da, egoera ulertzeko ahalegina eginda. Familiakoak ez diren beste heldu batzuekiko harremanen mundua zabaltzen da haurarentzat, horrek dakarrenarekin. Une horren esangura emozionalari buruzko informazioa emanen zaie, beraz, familiei.

Aldi hori garrantzitsua da adin horretako haurren indibidualizazio-sozializazio prozesuan, eskolaratzearekiko duten jarreran eta, oro har, beren ikaskuntzan.

Proposamen pedagogikoan hainbat gai zehaztuko dira; besteak beste, familiekiko elkarriketa eta bileren edukia, apurka-apurka eskolaratzeko ordutegiak, jokabide jarraibideak eta hezkuntza taldeak eskolako familien eta langileen artean komunikazio giro egokia sortzeko egokitzen jotzen duen alderdi oro.

Ikasturte hasieran haurren harrera aldirako plangintza egin beharko du ikastetxeak, non, besteak beste, honakoak hartuko baitira kontuan:

- Harrera errazteko jarduera berariazkoak diseinatzea;
- Haur bakoitzaren beharrak aintzat hartzea;
- Familien partaidetza eta laguntza;
- Ikastetxeko ordutegiak eta antolakuntza malgutzea.

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak onetsi beharko du harrerako aldi horren plangintza, eta ikastetxearen proposamen pedagogikoan sartuko da. Familiek plangintzaren berri izan beharko dute ikasturtea hasi aurretik.

• Jolasa

Hainbat egilek baieztatu dute jolasa eta jolastea direla haur txikien jarduera nagusiak, ikasteko eta mundua ezagutzeko duten modua izateaz gain.

“Hurrei berezkoa eta propioa zaien jarduera da jolasa, ikasteko, gatazkak gainditzeko, sentimendu, afektu eta plazera ulertu eta bizitzeko eta ikerketaz, simulazioaz eta entrenamenduaz gozatzeko aukera pribilegiatuak ematen dituen” (Irungo Udaleko Haur Hezkuntza, “Hezkuntza proiektua”. Curriculum proiektua, 2001eko maiatza (argitaratu gabea) 80. or.)

Haurren bidelagun izan behar dugu beren deskubrimenduetan, eta beren erritmoak eta interesak errespetatzeko aukera ematen digun plan bat jarraitu.

Adin hauetan ezin dugu ahaztu jolasak hitz gabeko hizkuntza gisa duen garrantzia handia.

“Gorputza bera da haurrak plazera eta plazerik eza esperimendatzeko duen tresna hurbilena eta lehena, bai eta bere nortasuna eta inguruarekiko harreman posibleak ezagutzekoa ere”. (Molina, M., Jiménez, Nuria, “La escuela infantil (Acción y participación)”, Paidós, Bartzelona 1995, 213. or.)

Egile horien esanetan, jolasak dira haurrek bizitzako lehen egunetatik egiten dituzten ekintza aztertzaile guztiak, behaketa, esperientzia, sorpresa, deskubrimendu eta berrespenez beteak. Ereku horretan, arretak, saiakerak, akatsak, argitasunak, irudimenak eta fantasiak dena zipriztintzen dute.

Hezkuntza taldeak ikaskuntza egoera eta testuinguru desberdinak diseinatu beharko ditu, jolasteko, ikertzeko eta ekiteko aukerak giro aproposa sor dezaten haurren ikaskuntza

bultzatzeko. Horretarako, espazioaren materialak eta egituraketa kontuan hartu beharko dira, horiek bihurtzen baitira, beren horretan, haurren jolasaren eszenatoki.

- **Giro espazioa**

Hezkuntzaren ikuspegitik, espazioak, materialak eta denborak antolatzeaz harago doa. Jolastu, barre egin, harremanak izan eta bizitzeko leku bat proiektatzeari buruz ari gara.

Leku horretan, haur bakoitzak bere bizi espazioa aurkitu behar du; bere beharrezanez erantzuteko aukera aurkitu behar du, fisiologia, afektu, autonomia, indibidualizazio-sozializazio, mugimendu, jolas, adierazpen, esperimentazio nahiz deskubrimendu mailan.

Espazioei ematen diegun giroa haurrei zer eskainiko diegun pentsatzeko eta aurreikusteko arrazoi bat da. Ondoren, haurrek ekintza honetan “jokoan jarri” dituzten estrategiak aztertzen ahal dira, maila afektibo, kognitibo eta sozialean. Ikasturtean zehar, taldea, beharrak, interesak eta adina garatu ahala giroa ere aldatu behar da. Hausnarketa etengabe egon behar da presente gure plangintza lanean.

Espazioak erraz identifikatzeko modukoak izan behar dira, ongi komunikatuta egon behar dira, eta gai izan behar dira taldeko harremana eta jolasa aukeratzeko autonomia sustatzeko nahiz mugikortasuna eta ezagutza bultzatzen dituzten zirkuituak ahalbidetzeko.

Hezitzaileek daukaten espazioa aztertuko dute, eta espazio hori diseinatzeko modua pentsatu, kontuan hartuta jasotako iruzkinak eta garatzen diren lan proiektuak. Espazioak ekintza aukera desberdinak iradoki eta pizten ditu. Ondorioz, eginkizun hezitzailea ere badu, bere horretan. Espazioa osatzen duen txoko edo elementu bakoitza ongi pentsatuta eta konfiguratuta egon behar da jolasteko aukerak eskaintzeko.

- **Denborak**

Haur bakoitzak bere historia pertsonal propioa dakar berekin, errespetatu egin beharrekoa. Denborak, erritmoak eta moduak banakakoak, desberdinak eta aldakorrak dira.

Familiek ere denbora bat behar dute, eta, beraz, beren seme-alaben bilakaera, deskubrimenduak eta lorpenak beraiekin partekatzea garrantzitsua da.

Era berean, haurrek denbora eskaintzen diegula ulertu behar dute. Hau da, hezitzaileen aldetik arreta lasaia eta ulerkorra jasotzen dutela sentitu behar dute.

Ikastetxeko eguneroko egoerak une pribilegiatuak dira garapena eta ikaskuntza sustatzeko; bereziki, autonomia pertsonalean, ohitura hartzeko prozesuan, indibidualizazioan, sozializazioan, hizkuntzan eta heldutasun emozionalean.

Horregatik ezinbestekoa da hezkuntza proposamenetan zehaztuta ager dadila haurren zuzeneko arretari eskainiko diogun denbora, bai eta zereginak antolatzeari eskainiko dioguna ere: hezkuntza taldearen bilerak, materialen prestaketa, familiekin bilerak, banakako elkarriketak, prestakuntza eta abar.

- **Materialak**

Materiala bera aukeratzea eta gelan non eta nola banatuko den erabakitzea hausnarketa prozesu baten emaitza izan behar da, hezkuntza mailan garrantzi handia baitu.

Merkatuan eta naturan material ugari daude, aukera oso desberdinak eskaintzen dituztenak. Ondorioz, hezitzaileek egin beharko dute hautaketa, ezarritako helburuak kontuan hartuta. Hautaketa horretan hainbat alderdi hartu behar dira kontuan; zentzu estetikoa, garbiketa, iraunkortasuna, ukimena eta abar. Familiekin lankidetzan aritzeak (materialak prestatzen, ekarpenak partekatzen...) balio erantsia emanen dio prozesuari.

Gainera, badago egituratu gabeko materiala ere, jolas proposamen bihur daitekeena. Horren adibide dira altxorren otzara edo jolas heuristikoa. Beste material batzuk ere gehitu litezke, barruko eta kanpoko patioetan erabiltzeko, jolastu bitartean.

Era berean, jolas proposamenetan erabilitako material zehatzak adieraziko ditugu: ipuinak, musika, oihalak, kartoia, buztina... Hala, jasotako irudiak eta edukiak aniztasunarekiko errespetua, tolerantzia eta berdintasuna ikasteko lagungarri izan daitezten ahaleginduko gara.

Hezitzaile bakoitzak bere ekarpenak egiten ahal ditu, kontuan hartuta bere esperientzia eta gelan dauden behar eta interesak.

- **Tratamendu linguistikoa**

[Ekainaren 1eko 61/2022 Foru Dekretuaren](#) 7.8 artikulua arabera, lehen ziklotik egiten ahalko da atzerriko hizkuntzarako lehen hurbilketa.

Atal honetan eta proposamen pedagogikoaren barruan irakasten d(ir)en hizkuntz(ar)en tratamendurako metodologia espezifikoak zehaztuko da.

2.5. EBALUAZIOA

Ebaluazioa funtsezko elementua da hezkuntza prozesuan, eta prozesu hori une oro elikatzen laguntzen du.

Ebaluazioa globala, jarraitua eta prestatzailea izanen da. Erreferentzia gisa hartuko ditu haur bakoitzaren banakako ezaugarriak, ikaskuntza erritmoa, ikasteko modu zehatza, bere bikaintasunak eta ekarpenak, kontuan hartuta ikaskuntza berdinerara iristeko dauden bide desberdinak eta abiapuntu gisa hartuta arlo bakoitzean ziklo bakoitzerako ezarritako ebaluazio irizpideak.

Zuzeneko behaketa sistematikoa izanen da ebaluazio prozesuaren teknika nagusia. Ikaskuntza prozesu horien ebaluaziorako, behaketa erregistroak erabiliko dira, lorpen bakoitza interpretatu eta ateratzeko; beraz, garrantzitsua da emaitzak ez ezik gertatutako prozesuak ere ikertu eta dokumentatzea, balioa emanaz banaka eta taldeka egindako ibilbideei.

Horretarako, hezkuntza taldeak hauek izaten ahalko ditu hausnarketa gai:

- Ebaluaziorako erabiliko diren prozedurak eta tresnak: galdetegiak, egunerokoak, behaketa fitxak, bideoak eta abar.
- Erregistroak egiteko maiztasuna.
- Txostenen erredua eta horien hartzaileak.
- Informazioa familiekin partekatzeko epeak.
- Bestelakoak...

Ikaskuntza prozesuaren ebaluazioaz gain, profesional bakoitzak bere jardunaren ebaluazioa egiten du, bere hezkuntza praktika egokitzeko.

Hezkuntza praktika on baterako beharrezkoa da une oro behatzen egotea eta norbere esku-hartzea aztertzea. Garrantzitsua da gure eguneroko praktikan “errazen planifikatzen” ahal diren alderdiak aztertzea, besteak beste baliabideak, proposamenak, abesten diren abestien letrak, eskaintzen ditugun materialak... Halaber, horiek guztiek haurren behar, interes eta eskariak zein neurritan betetzen dituzten ere kontuan izan beharko da.

Horrez gain, pertsonalagoak diren, harremanekin lotuta dauden edo jarrerazkoak diren alderdiak ere aztertuko dira, oso garrantzitsuak baitira etapa guztietan, are gehiago honetan; gorputzaren jarrera eta prestutasuna, hitz gabeko komunikazioa, bidalitako mezu motak, taldeko haur bakoitzarekiko harreman mota eta abar.

2.6. BANAKAKO DESBERDINTASUNEI ERANTZUTEA

Hezkuntzako esku-hartzean aintzat hartuko da ikasleen aniztasuna, eta hezkuntza jarduna haur bakoitzaren ezaugarri, behar, interes eta estilo kognitibora moldatuko da; haur bakoitzaren bilakaeran eragina izan dezaketen ezaugarriak identifikatuko dira, ikasle guztien inklusio erabatekoa ziurtatzeko helburuarekin.

Neurri egokiak hartuko dira hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleentzat.

Horrekin batera, hezkuntza premia bereziak dituzten haurren ezaugarri eta behar pertsonaletarako hezkuntza erantzun egokiena ezarriko dute.

Banakako desberdintasunei dagokienez, proposamen pedagogikoan honako hauek zehaztuko dira:

- nola ulertzen eta egokitzen diren ikaskuntza egoerak: banakako interes eta beharren aurrean zein irekiera eta entzute maila dugun proposamen desberdinetan;
- nola egiten diren lantaldeak: talde txikiak, adin desberdinetakoak eta abar.
- nola ulertzen diren hezitzaile bakoitzak haur bakoitzarekin duen banakako harremanaren uneak;
- nola lehenesten den gatazken ebazpen baketsua ikaskuntzan;
- nola sartzen diren hezkidetzako eta berdintasuna ikasteko balioak;
- nola txertatzen diren aniztasunaren eta desberdinaren errespetua eta ulermena ikaskuntzan;
- nola artatzen diren beste kultura batzuetatik datozen haur eta familiek izaten ahal dituzten behar bereziak;
- baliabide bereziak, materialak, giza baliabideak;
- beste profesional batzuekiko koordinazioa, egoera desberdinak tratatzeko;
- koordinazioa familiekin.

2.7. FAMILIEN ELKARLANA. TUTORETZA.

Haur Hezkuntzan tutoretza lanak haurren banako eta taldeko hezkuntza prozesuan lagunduko du eta, era berean, elkarrekiko begirunea, desberdintasunen errespetua eta berdinen arteko lankidetzak sustatuko ditu, arreta berezia jarritz genero berdintasunari.

Tutoretzatik koordinatuko da hezkuntzako esku-hartzea, eta etengabeko harremana izanen da familiekin.

Familiekiko harremana nola gauzatzen den zehaztu behar da, beren seme-alaben hezkuntza prozesuan parte hartzen dutenei eskaintzen zaizkien bideak definituz eta, hala badagokio, alderdi hauek nola planteatzen diren azalduz:

- gelako bilerak: maiztasuna, metodologia, gaiak, helburuak;
- banakako elkarriketak;
- eguneroko harremanak sarrera eta irteeretan;
- informazioa trukatzeko erabiltzen diren baliabideak: erregistroak, egunerokoak, panelak, agendak eta abar;
- familiak ikastetxearen hezkuntza jardueran parte hartzeko sistemak: jarduera jakin batzuetako partaidetza, “egun bat ikastetxean”, jaiak, irteerak, ospakizunak, materialen prestaketa eta abar;
- guraso eskola, konferentziak, mintegiak, lantalde mistoak (familia eta ikastetxea) eta abar.

2.8. EGUNEKO JARDUNAREN ANTOLAMENDUA

Eguneroko jardunak haur hezkuntzako lehen zikloan duen balio hezitzaile garrantzitsua nabarmendu nahi dugu. Hainbat azterketatan frogatu da errutinak deitzen ditugun horiek ezinbestekoak direla haurren garapen emozionalean eta ikaskuntzan.

“Haur eskolaren barruan, eguneroko bizitza ikaskuntza iturri da, eta, era berean, norbere nortasuna eraikitzen den lekua ere bada. Hain garrantzitsua eta konplexua den eginkizun hori gauza sinple askoz egina dago... eguneroko bizitza deitzen dugun horretaz egina dago. Eguneroko bizitzaren gauza txiki horiek –errutinak, alegia jatea, lo egitea, atsedean hartzea, higiene pertsonala zaintzea, jolastea, objektuak aztertu eta manipulatzeko, jolastea, familiarekin elkarlanean egotea eta gauza berdinak behin eta berriz egitea, bai eta egoera berri eta ezustekoak bizitzea ere– ikusten ez den baina, hala ere, gure aukeren kontzientzia ematen digun hori transmititzen dute.

Eguneroko bizitza planifikatua da –inprobisatzea ere zilegi da, baldin eta aurretik modu sistematiko eta progresiboan planifikatu badugu–, adimenez egituratua, bakoitzaren errealitatea entzute horretan errota, bizitza beraiekin partekatzen duten hezitzaileen kalitatean errota, eta bizitza familiar eta sozialaren une oroko elkarriketan errota”⁵

Horregatik, eguneroko bizitzaren antolamenduak berebiziko garrantzia dauka. Haurren eguneroko jarduerari buruz hausnartuko da.

• Harrera eta agurra

“Eskolako sartu-irtenak haurrentzako garrantzitsuenak diren bi munduen arteko hurbilketa eta topetarako eguneroko aukera bat dira: familiari eta eskolari buruz ari gara. Afektuak, interesak eta erantzukizunak partekatzen dituzten pertsonen arteko komunikazio eta harremanetarako uneak dira. Aukera eskaintzen dute batzuk bestez interesatzeko, elkar hobeki ezagutzeko eta lotura afektiboak estutzeko.

Baina, era berean, egoera horietan sarritan ezustekoak eta batzuetan kontraesankorrak

diren sentimendu eta emozioak agertzen dira, topaketaren poztasuna eta bereizketaren tristura nahasten baitira” (Antón, M. “Planificar la etapa 0-6. Compromiso de sus agentes y práctica cotidiana”. Grao. Bartzelona 2007. 71,72 or.)

Harreran kontuan izanen ditugu familia eta haurrak, aztertuko dugu nola egiten diegun harrera, zein den hezitzailearen eginkizuna eta nola erraztu sarrera eta bereizketa prozesua bai hurrei bai familiei.

Adibidea:

Haur baten sarreraz edo harreraz ari garenean, gelara sartzea eta leku bat aurkitzea baino askoz gehiago esaten ari gara; helduak jarrera egokia izan behar du entzuteko eta behaketarako.

Haurrak heldu bat behar du bera jaso eta bere izenez dei diezaion (baita bere gurasoaren edo ikastetxera berarekin batera doan pertsonaren izena jakin dezan), begietara lasaitasunez begiratu diezaion eta harekin harreman fisikoa ezar dezan.

- **Jolasa**

Jakina da adin hauetan jolas denbora eta beste denbora batzuk argi eta garbi bereizteak ez duela zentzu askorik. Ondorioz, atal honetan, gelan jolas librerako erabiltzen diren denborak izanen ditugu hizpide.

Hezitzaileak hurrekiko elkarrekintzan duen eginkizunaz hausnartuko dugu. Zehaztuko dugu zein esku-hartze maila izanen dugun, eta planteatuko dugu nola jokatu jolas egoera desberdinetan, bereziki jostailuen eta bestelako egoeren ondorioz taldean gatazkak sortzen direnean.

Egoera hauetan erabilitako hizkuntza oso garrantzitsua da. Beraz, hezkuntza taldearen hausnarketan aintzat hartu beharko da zein hitz, keinu... erabiliko ditugun beraien aurrean.

Halaber, joko materiala jasotzeko orduan jarraitu beharreko jardunbideak sartuko ditugu, haurren inplikazio parekidea bultzatuz, generoa edozein izanda ere.

- **Korroa edo asanblada**

Korroa edo asanblada ikastetxearen eguneroko bizitzan une esanguratsua da. Denbora tarte hau lagungarria da taldean batzeko, bakoitzak taldean duen lekuaz jabetzeko, elkarrekin parte hartzeko eta komunikatzeko. Era berean, ideiak trukatzeko eta elkarrekin batzeko puntu bat izaten ahal da, proposamen hezitzaile bat antolatzea eragin lezakeena.

- **Ikaskuntza egoerak**

Proposatzen da ikaskuntza egoera pizgarriak, adierazgarriak eta integratzaileak diseinatzea, ongi kontestualizatuta daudenak eta, horrez gain, errespetatzen dutenak ikasleen garapen integralerako prozesua, alderdi guztietan, eta aintzat hartzen dituztenak haien potentzialtasunak, interesak eta beharrak, bai eta etapako une bakoitzean errealitatea ulertzeko moduak ere. Ikaskuntza egoera horiek lagunduko diete eboluzionatzen eta haien prozesuetan aurrera egiten, bakoitzaren denborak errespetatuz, eta desafioak eskainiko dizkiete, prozesu pertsonal eta sozialean aurrerapausoak egiten jarraitzen laguntzeko.

Ikaskuntza egoerek desafio edo arazo bat planteatu behar dute, haurren adin eta

garapenaren araberako konplexutasuna izanen duena, haurrak, hura sormenez ebazteko, etapa antolatzen duten hiru arloetan ikasitakoa abian jar dezan modu integratuan. Zeregin eta jarduera batzuk egitea da egoera horien abiapuntua, lortu nahi diren helburuak argi eta zehatz planteatuta, helburu horiek lortzeko beharrezkoa izan dadin oinarritzko jakintza multzo bat integratzea.

Puntu honetan talde txiki, ertain eta handian proposatzen diren eta, sarritan, astean zehar aldatzen diren ikaskuntza egoerei buruzko hausnarketak sartuko dira.

Hona hemen ikaskuntza egoeren adibideak ikusteko esteka.

<https://sites.google.com/educacion.navarra.es/curriculos-de-navarra-eu/etapak/haur-hezkuntza>

- **Garbitasuna**

Garbitasun eta higiene uneek hezkuntzarako gaitasun handia dute, beren horretan. Modu egokian planteatzen badira, hezkuntzako helburu eta eduki asko jorratzeko baliatzen ahal dira. Horregatik, garrantzitsua da taldeak garbitasun uneen balio hezitzaileari buruz hausnartzea eta horrek dakartzan alderdi metodologiko desberdinei buruz erabakiak hartzea.

Garbitasunarekin lotutako errutinen artean pixoihalak aldatzeari buruzko hausnarketa zehazten ahal dugu; zein garrantzia ematen zaion binakako harreman horri eta zein antolaketa eta metodologia neurrik sustatzen duten une hori pribilegiatuki hezitzailea izatea: hezitzailearen jarrera, haurren lankidetzaren geroz eta handiagoa, gainerako taldekideak pixoihala aldatzeko unean eta abar.

Oso garrantzitsua da, era berean, esfinterren kontrolari buruz hausnartu eta erabakiak hartzea (hezkuntza taldeak, taldearen eta familiaren artean...): nola ulertzen dugun ikaskuntza mota hau, irizpide metodologiko eta antolatzaileak; jarrerak, denborak, haur multzoak, espazioak, materialak eta familiekiko koordinazioa gai honetan.

Atal honetan, beste askotan bezala, gogoeta eta erabaki estetikoak garrantzitsuak dira.

- **Patioa**

“Kanpoko espazioak, batez ere ongi pentsatuta badago eta helduak espazio horrek haurrentzat duen garrantziaren jakitun badira, aukera eskaintzen du esperientzia errepika ezinak bizitzeko eta ikaskuntza oso aberatsak eskuratzeko, espazio itxietan ez bezala” (Lobo, E., “Educar en los primeros tres años”, Teleno. Madril 2002 137. or.)

Hausnartu egiten dugu espazioari, materialei eta hezitzaileak denbora horretan duen jarrerari buruz. Adibidea:

“...jarrera pasiboak ahaztu behar dira. Hezitzailearen esku-hartzearen helburua ez da izan haurrak ikuskatzea soilik, baizik eta baita ere haur guztiek ekintzarako aukerak dituztela bermatzea, bai azkarrenek bai lotsatiagoak edo hain seguruak ez diren horiek. Arretaz behatuz gero, ikusiko dugu beharrezkoa ote den materialak ematea, iradokizunak egitea, hala behar duenari arreta pertsonala ematea, segurtasuna edo kontsolamendua eskaintzea edo jolas bat hastea asperdura gailentzen hasten bada” (Lobo, E., “Educar en los primeros tres años”, Teleno. Madril 2002 139. or.)

- **Bazkariaren unea**

Bazkariaren uneak berebiziko garrantzia du egunerokoan. Azter dezagun hezitzailearen eginkizuna, haur bakoitzaren eta bere erritmoen errespetua, une horrek helduarekin eta

gelakideekin harremanak izateko eskaintzen dituen aukerak, autonomia sustatzen duten elementu metodologikoak, elikagai eta ehundura berriak sartzen laguntzeko irizpideak...

Bazkalordua une atsegina izateko ahalegina egin behar dugu, itxaronaldi luzerik gabe, haurrak ere partaide aktibo bihurtuz zapiak jarri, mahaia prestatu edo bazkaria zerbitzatzean.

Probatzeko aukera eskainiko dugu, janari batzuen edo jateko ekintzaren gaineko arbuiorik ez sortzeko. Elkarrekin irizpideak ezarriko ditugu janariaren kopuruari dagokionez (zopa, pure edo leken ontzi kopurua, bigarren platereko pieza kopurua eta abar), gutxieneko orokor bat adostuz eta haur bakoitzaren gaitasuna edo beharra kontuan hartuta, jatera behartu gabe.

- **Lo-kuluxka**

Hezkuntza taldeak atseden eta siesta uneez hausnartuko du, eta aintzat hartuko ditu taldeko egoera eta testuinguruak maneiatzeak duen garrantzia eta konplexutasuna.

Halaber, horretan eragina duten alderdiak kontuan hartuko ditu: loaren erritmo eta behar desberdinak, lo hartzeko seguru sentitzearen beharra, familiako ohitura desberdinak eta haur bakoitzak lasai egoteko erabiltzen dituen baliabideak. Hala, hausnartu eta adostu beharrekoak izanen dira: nola antolatu lorako trantsizio unek, zein den hezitzailearen eginkizuna lotarako eta esnatzeko unean, nola artatu erritmo eta beharrian desberdinak, giroa eta abar.

- **Jaiak eta egun bereziak**

Egunerokoaren azterketaren osagarri, apartekoaren eta aniztasunaren gaitasun hezitzaileari buruzko hausnarketa txertatuko dugu: ekitaldi soziokulturalei, jaiei, irteerei, urtebetetzei eta abarri lotutako egun bereziak.

Kontu handiz artatuko ditugu egoera familiar berriak, bai eta ohitura kulturalen aniztasuna ere, eskaintzen dituzten aukera hezitzaileak aprobetxatuz.